



**Zumaia Udala**

## **ESKOLA-KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEA (MADE) – ZUMAIA 2026**

Zumaia Udalak, Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin elkarlanean, **Eskola Kiroleko Monitore Laguntzailearen (MADE) prestakuntza Zumaian** egiteko aukera eskainiko du.

### **Prestakuntzaren datu nagusiak**

- **Sarbide-proba:** irailaren 19an, goizez, Aitzuri pilotalekuan.
- **Online ikastaroaren hasiera:** irailaren 21ean.
- **Ohiko azterketa presentziala:** urriaren 23an, ostiral arratsaldean, Zumaian.
- **Ezohiko azterketa presentziala:** azaroaren 13an, ostiral arratsaldean, Zumaian.
- **Izen-emateko azken eguna:** irailaren 15a.
- **Prezioa:** 80 €. Ikastaroa euskaraz egin eta gaindituz gero, matrikularen zenbatekoa itzuliko da.

Azterketa presentzialen **ordutegi zehatza izena eman ondoren jakinaraziko zaie parte-hartzaileei.**

### **Izen-ematea**

Izen-ematea egiteko, izen-emate orria bete eta bertan adierazitako dokumentazioarekin batera bidali behar da **ekfb@euskalkirola.eus** helbidera.

Aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean daude NANaren kopia, izen-emate orria, dagokion titulazio akademikoaren egiaztagiria eta matrikularen ordainagiria.

### **Kontuan hartzeko**

- **MADE** prestakuntza beharrezkoa da eskola-kirolean edo kirol-hastapenean monitore edo entrenatzaile gisa jarduten dutenentzat.
- **Lehen Sorospenak / SOS** presentzia fisikoa eskatzen duen monitore- edo entrenatzaile-lana egiten dutenentzat da beharrezkoa.
- **LOPIBI** adingabeekin lan egiten duen edozein kirol-profesionalentzat da beharrezkoa.
- **LOPIBI eta Lehen Sorospenak / SOS** online egin daitezke.

MADE prestakuntzak **2027ko azaroaren amaierara arteko behin-behineko gaikuntza** emango du. Ordura arte, bakoitzak bere jarduerari dagokion titulazio ofiziala eskuratu beharko du.

Gainera, MADE gainditu ondoren dagokion kirol-modalitateko teknikari-prestakuntza egiten bada, **bloke komuna eginda izango da**; beraz, dagokion bloke espezifiko eta praktikaldia baino ez dira egin beharko.



**Zumaia Udala**

Dagoeneko eskatzen den titulazioa dutenek **irailaren 30a baino lehen** eman behar dute izena Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan. MADE egiten ari direnek, berriz, **ikastaroa amaitu eta gainditu arte ezin izango dute MADE bidez erregistroan izena eman.**

### **Profesionalen Erregistroari eta eskatutako titulazioei buruzko informazioa**

Kirol- eta jarduera fisikoko profesional gisa jarduteko **eskatzen den titulazioari**, gaikuntza-bideei edo **Profesionalen Erregistroan izena emateko prozedurari** buruzko zalantzarik izanez gero, Kirol Eskolarekin harremanetan jartzea gomendatzen da.

Indarrean dagoen araudia, inskripzio-plataforma eta informazio eguneratua esteka ofizial honetan daude eskuragarri:

### **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroa – Eusko Jaurlaritz**

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/jarduera-fisikoaren-eta-kirolaren-profesionalen-erregistroa/web01-a2kiesko/eu/>

Zalantza zehatzetarako:

**Kirol Eskola**

[kiroleskola@euskadi.eus](mailto:kiroleskola@euskadi.eus)

**944 032 866**

### **Dokumentuak**

1. **MADE Zumaia 2026 – Kartela**
2. **MADE Zumaia 2026 – Informazioa eta izen-emate orria**

Zumaian prestakuntza hau antolatzeko sortutako aukera aprobetxatzera animatzen zaituztegu!